

«Poetek erakutsi ziguten memoria Mnemósine dela; hari esker, oroitzen duenak, recordaris, bihotzean gordetzen du bizitzan funtsezkoa izan zaiona»

Andrés Garcés-ekin solasean



Ianire de Andres Olabarria
Arkitekturan lizentziatua eta Hiri-politikak,
Hiritartasuna eta Haurren Parte-hartzean
aditua

Bidaltze data: 2019-04-03

Onartze data: 2019-05-04

Andrés Garcés A. Valparaisoko Unibertsitate Pontifizio Katolikoko Arkitektura eta Diseinu Eskolako irakaslea da. Ikerketa-lerroa «La ciudad-teatro» proposamenaren inguruan garatu du eta bertan jorratu ditu antzerkiaren historian eszenak duen lekuaren perspektiba eta hirian eta arkitekturan behar den «beste leku bat»en ideia, espazio publikoa ekintza eszeniko gisa bereganatzeko prozesuetatik.

Aldiri: PUCVko Arkitektura eta Diseinu Eskolak sorkuntzaren inguruko ikuskera partikularra du. Ikuskera poetikoa deritzozue. Esan genezake formakuntza akademikoa ardatz horren inguruan eraikitzen dela? Zertan datza?

Andrés Garcés: Hezi garen eskola 1952an sortu zuten zenbait arkitekto, filosofo, artista eta poetak, duela ia 70 urte. Haiek erakutsi ziguten gizakion ezaugarri funtsezkoena izaera poetikoa dela, eta hortik abiatuta gizakiak bere mundua eraikitzen duela.

Gizakiok espezie gisa ikasi eta eraikitze dugun gaitasunean agertzen da izaera hori, nahiz eta ez den beharrezkoa gizakion biziraupen funtzionalerako. Opari bat da, dohain bat, zeinak, nahi izanez gero, ezezaguna bilatzera eraman gaitzakeen, gertatze dagoena eta oraindik nabarmendu ez dena bilatzera. Gizartearen eguneroko ohitura eta usadioetatik urrunago joatea ahalbidetzen du.

Poetek sorreratik gaur arte lagundu digute ikuspegi hori hitz poetikoaren bitartez partekatuz, baina baita izaera desberdineko ekintza poetikoen bitartez ere, eta horrela denon artean jaia sortzen dugu etengabe, hain zuzen ere, gizakiaren ekintza sortzaile eta poetikoaren adierazle dena.

Gure eskolan, poesia, gertakari bizia da eta egiten ditugun gauza guztietan dago, hala nola tailerretan, jokoetan, txapelketetan, zeharkaldietan, jaietan, obren eraikuntzan, eta horietan ikasleek parte hartzen dute arkitektura eta diseinuaren ofizioa ikasteko ahalegina eginez.

A: Zer leku okupatzen du memoriak lekuaren ikuskera poetiko horretan?

AG: Poetek erakutsi ziguten memoria Mnemósine dela, ama guztien musa, eta hari esker, oroitzen duenak, recordaris, bihotzean gordetzen du bizitzan funtsezkoa izan zaiona. Hori oso garrantzitsua da, izan ere, zerbait memoriara ekartzea lehenago hunkitu gaituena ekartzea da. Guretzat garrantzi handikoa izan den horrek gelditasun-egoera batetik beste egoera berri batera garamatza. Haatik, poetek esan digute ezin dugula gogoratu oraineko benetako egoera batean sortu ez den hori, non jokoan dagoen garena. Beraz, memoriak bizi dugun egoera ekartzen digu, bere oraineko erabateko kontzientziarekin. Hau dena abiarazteko eskolak erreminta bat eman digu: obserbazioa. Ekintza horrek lekuan bertan presente egotea eskatzen du, seguruenik gaur egun oso zaila da egitea, «Obserbazioaren ekintza» esaten diogu eta bizi ditugun errealitatearen gertaerak marraztera irtetea datza, hain justu momentu horretan ikusten eta entzuten duguna jasoz.

A: Eskolaren oinarriek erlazio estua dute lurraldearen ikuspegiarekin, bizi dugun lekuarekin. Zer papera du memoriak lekuarekin? Nolakoa izan zen hego konoa hegoaldera orientatuta marraztera eraman zintuzten prozesua?

AG: Erabakia ez zen izan Eskolako poetena, amerikar kontinentean jada gertatzen ari zen beste artista batzuen sormen-ekintzen bidez. Izan ere, ezer ez da horrelakoa,



Irudiaren egilea – Mikel Larrañaga

denak sarrera bat behar du, zeinak berriak diruditen agerpenak lantzen dituen. Hau da, memoriak izaera bikoitza du, iragana da, baina orain gisa manifestatzen da. Beharbada adierazgarriena da munduaren alderantzikatzeko horrek, non hegoaldea iparra den, harrera ona izan zuela talde horretako artisten artean eta beren pentsatzeko eta jarduteko eratzat hartu zutela. Eskolak eta Amereida poemak zera aldarrikatzen dute: “une batez nostalgiari erresistitza instintuaren bitartez”, hegoaldeko gurutzearen eta Amerikaren alderantzikatzearen proposamena da Europa imitatzeke nostalgiari erresistitzeko 70 urtez mantendu den instintua, Amerikaren eraikuntzan beti egon dena. Horrek ahalbidetu digu oinarri propioa duen eskola eraikitzea, Hiri zabala eraikitzea eta zeharkaldiak egitea kontinentean zehar.

A: Zeharkaldiak zuen eskolaren oinarritzko parte dira. Zer dira? Zer leku du memoriak prozesu horietan?

AG: Lehenengo zeharkaldia fundatzaileek egin zuten 1965ean, kontinentea hego muturretik Alaskarino zeharkatzeko Ekimen sortzailea izan zen, baina ez zuten amaitu, zeren Boliviara heldu eta bertan behera utzi baitzuten. Bizipen horretatik sortu zen Amereida poema, bidaia hartan parte hartu zutenek idatzia. 1984an eskolak zeharkaldiak ikasketa-planearan sartzea erabaki zuen, urtero egingo zirenak. Dagoeneko 300 baino gehiago egin dira kontinentean zehar eta ikasleek karrerako urte guztietan egiten dituzte. Bidaia horietan kontinentea zeharkatu, behatu eta esperientzia eskuratzen da. Tailer bakoitzak bere arauak ditu, batzuek kontinentea zeharkatzen dute soilik eta beste batzuek zeharkatzeaz batera leku batera helduta lan bat

egiten dute. Hasieran, lan horiek lurraldearen berezitasunak nabarmendu nahi zituzten, eta, hortaz, zabaltasuna, naturala eta espaziala, laudatze zuten. Gaur egun, zeharkaldi batzuek gizarte- eta lurralde-izaera gehitu dute, eta izaera horrekin komunitateak aurkitzea eta haiekin lan egitea bateratu nahi dute, lekuekiko orientazioaren ikuskera espaziala galdu gabe. Arkitektura pentsatzeko daukagun eraren funtsa zera da: arkitektuta, lehenik eta behin, Hedaduraren orientzio-ekitaldi bat da, eta bertan lekuaren memoria sartzen da, bertan bizi denaren esistentziari zentzua ematen dion fenomeno ukizeina den aldetik.

A: Zergatik aukeratu dituzu azaleko irudiak memoriaz hitz egiteko?

AG: Kasselen 2017an egin genuen erakusketarako burututako ekintza poetiko baten irudia da. Ekintza bera eta erakusketako gure pabilioaren eraikuntza azaltzen duten hainbat irudiren sekuentzia da, eta uste dut aukera ematen duela pentsatzeko memoria sintesi-ekintza bat dela, funtsezkoa eta garrantzitsuena jasotzen duena, baina ez iragan guztia. Memoria gogoratzea da (latinez re = errepikatu, cordis = bihotza), hau da, oraindira ekarri hunkitzen gaituena, gainerakoa desagertu edo desagiten da. Zentzu horretan, Ekintzaren irudi horiek marraztu ditut, zeinek, deskribapenean sartu gabe, gertaeretan denboraren dimentsioa txertatzeko aukera ematen duten.

===

Erredakzioan itzulia.